


GAZTERIA


KONTU EMATEA

2017/2018

Tolosatzen aurrekontuak urtez-urte



Gazteriako ildo estrategikoak plangintzaren baitan



1.2

Tolosako haur,
nerabe eta
gazteen sustapena

1.2.1

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN IKUSGARRITASUNA, PARTE HARTZEA ETA INPLIKAZIOA SUSTATU TOLOSAKO GIZARTE BIZITZAN

1.2.2

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ZERBITZUAK EZAGUTARAZI, INDARTU ETA ERAGILE ETA ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN JARDUN

1.2.3

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ARTEKO ELKARLANERAKO, SORMEN EKINTZETARAKO ETA BELAUNALDI ARTEKO EKINTZAILETZARAKO GUNEAK AHALBIDETU

1.2.4

GAZTEEN EMANTZIPAZIOA SUSTATZEKO POLITIKAK DISEINATU ETA GAUZATU

1.2 Tolosako haur, nerabe eta gazteen sustapena



1.2.1 HAUR, NERABE ETA GAZTEEN IKUSGARRITASUNA, PARTE HARTZEA ETA INPLIKAZIOA SUSTATU TOLOSAKO GIZARTE BIZITZAN

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- **Gazteen eta gazte-elkarteen arteko jardunaldi edota topaketak burutu bi urtean behin.**
- **Haur, nerabe eta gazteen nahiak eta kezkak ezagutzeko diagnostiko partekatua egin.**
- **Boluntariotzaren nazioarteko eguna bisualizatu herrian ekintza konkretuekin.**

Ekintzak

- Gazte elkartuez osatutako talde motorea identifikatu eta gaiaren inguruko lehen bilerak egin dira.

- Jarduera hau Gizarte zerbitzuekin elkarlanean antolatuko da bi urtean behin. Irekia izango den ekimen honetan, izaera soziala duten elkarte eta bolondresek hartuko dute parte eta helburua elkarren berri izatea eta lankidetzaren proiektu berriak abian jartzeko ekimenak bultzatzea izango da.

Betetze maila

2017

% 25

2017

% 50

1.2 Tolosako haur, nerabe eta gazteen sustapena



1.2.2 HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ZERBITZUAK EZAGUTARAZI, INDARTU ETA ERAGILE ETA ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN JARDUN

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:


- Hezkuntza, prebentzio eta aisia alorretako elkarlan hitzarmenen sistematizazioa.
- Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuen ber-definizioa modu parte-hartzailean burutu eta bisualizatu.

Ekintzak

- Ikasturte berriarekin helburua prebentzio mahaia, ikastetxeekin dugun mahaia eta herriko eragileena Sistematizatzea da. 2.1. ekintzarekin lotuta doa. Udala eta Hezkuntza mahaia arteko koordinazio foroarekin.

- Nerabeen zerbitzuarekin ari gara berdefinizio fasean, Foru Aldundia, gazteak eta eragile inplikatu guztiekin. Udal ekipamenduen diagnostikoarekin lotuta doa gazteen ekipamenduen hausnarketa. Horretarako aholkularitza zerbitzu bat dugu foru aldundiarekin dugun hitzarmena bitarte.

Betetze maila



1.2 Tolosako haur, nerabe eta gazteen sustapena



1.2.3 HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ARTEKO ELKARLANERAKO, SORMEN EKINTZETARAKO ETA BELAUNALDI ARTEKO EKINTZAILETZARAKO GUNEAK AHALBIDETU


Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Haurren hiri egitasmoaren barruan belaunaldien arteko informazioaren transmisioa landu.
- Hirigintza alorrak egin beharreko udal ekipamenduen azterketa integrala burutu ondoren, espazio egokia hautatu eta modu partekatuen espazioa eta erabilera desberdinak definitzea, berdintasun irizpideak kontuan hartuz.

Ekintzak

- 2017/2018 ikasturteko haurren hiriako gaia belaunaldien arteko informazioaren transmisioa da. Gai hau belaunaldi arteko pertsonen arteko harreman eta informazio transmisioan oinarrituko da.

Betetze maila



1.2.4 GAZTEEN EMANTZIPAZIOA SUSTATZEKO POLITIKAK DISEINATU ETA GAUZATU

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Gazteen emantzipaziorako oztopo eta beharren inguruko azterketa-diagnostikoa egitea.
- Gazteen emantzipaziorako norantzan bidelagun izan. Arlo profesionalarekin loturiko ekintza ezberdinak burutuz- ideia lehiaketa- berdintasun irizpideak txertatuz.

Ekintzak

- Gazteen parte-hartzea eta beraien ekimenerako, sormenerako eta autoenplegurako eta enpresagintzatako gaitasuna piztu beharrean datza, hain zuzen ere, irabazi asmorik gabeko proiektuei laguntzeko premia. Beti eta proiektuok gure udalerrirako onuragarriak eta aberasgarriak badira. Hori aintzat harturik, deialdi bat sortu da, gaur egun laguntza edo bultzada baten beharrean dauden gazteek sustaturiko proiektuei laguntzeko modu egokia delakoan.

Betetze maila

